

2024/3/9

# 2024KO MARTXOKO AUZOLANA

AUZOLANKIDE KOPURUA: 37 LAGUN

---



Ertzillegiko hondakindegia

## ZER EGIN DUGU

Hiru lan-taldetan antolatu gara:

**Herrigunekoak:** San Martin, San Gregorio eta Ergoiena.

**Zuhaitz landaketakoak:** Karobialde edo Esatetxo inguruan.

**Mendiko zaborren garbiketakoak:** Aitzarteko zenbait lekutan eta Aizmusun.

---

---

## Herrigunekoak

**San Martingo** lorontzietan landareak kimatu eta hutsuneetan landare berriak landatu ditugu. Ez dugu betarik izan lorontzi guztiak txukuntzeko, eta falta direnak datozen egunetan egingo ditugu.

**San Gregorioko** parkea eta frontoia garbitu eta txukun utzi ditugu. Parke inguruko estolderia ere garbitu dugu. Lorontzietan kimaketak eta landaketa-lanak egin ditugu.

**Ergoienan** parkea garbitu dugu, lorontzietan landareak kimatu eta hutsuneetan landare berriak landatu ditugu.

## Argazkiak



## Zuhaitz landaketa

160 landare sartu ditugu Karobialde edo Esatetxo inguruan. Landaketaren helburu nagusia Ataungo basoen dibertsitatea aberastea izan da, horrek erle beltzaren garapenean garrantzi berezia baitauka. Herriko gaztetxoenen laguntzarekin gauzatu dugu auzolana.

Landareak: Artea (*Quercus ilex*), erramua (*Laurus nobilis*), gurbitza (*Arbutus unedo*), Marmaratila (*Viburnum lantana*), makatza (*Pyrus cordata*) eta Sagarmina (*Malus sylvestris*).

## Argazkiak



---

## Mendiko hondakindegia

### Ertzillegiko hondakindegia

Ertzillegi eta Ertzillegi berri artean aspaldiko hondakindegia bat zegoen.

### Argazkiak

Aurretik



Ondoren



---

## Aitzarteko hondakindegia isolatuak

Aitzarteko bi errekaetan botatako zakuak jaso dira, baita bateria eta pilak ere.

### Argazkiak



---

## Aizmusuko hondakindegia

Urkillaga eta Lareo artean maldan behera botatako artilez beteriko zaku ugari dago. Ez dugu denborarik izan guztia jasotzeko. Hurrengo auzolanean amaituko dugu bilketa.

### Argazkiak



## Jasotako hondakinen sailkapena

Herriguneko garbiketa	Kg
Ontziak	6
Errefusa	8
Kimaketa hondarrak	15
<b>Ertzillegiko hondakindegia</b>	
Txatarra	300
Errefusa	220
Pilak	0,5
Beira	65
Uralita	20
<b>Puntu Isolatuetako bilketa</b>	
Animalien botikak	5
Beira	25
Ontziak	15
Errefusa	80
Bateria	10
<b>Aizmusuko hondakindegia</b>	
Artilea	250
<b>GUZTIRA</b>	<b>1019,5</b>

Eskerrik asko auzolanean lagundu diguten herritarrei, Haitzarri elkarteari eta Aldundiko basozainei. Hurrengo auzolana hiru hilabete barru egingo dugu.

